



## **DONOSTIAKO HILERRIAK, SANTU GUZTIEN EGUNERAKO PREST**

Polloe, Altza eta Igeldoko udal-hilerriek milaka pertsona hartuko dituzte datorren asteartean, azaroak 1, Santu Guztien eguna dela-eta.

Hilerrien hitzordua da, urtero berritzen dena. Egun horretan panteoiak, horma-hilobiak eta hilobiak txukuntzen dira, jada bizirik ez dauden maite ditugun pertsonak gogoratzen ditugu, eta loreak eta beste oroitzapen batzuk uzten dizkiegu.

Miguel Ángel Díez Zerbitzu Publikoetako zinegotziak aholku bat eman du “Santu Guztien egunean sortzen diren jende-pilaketak saihestu nahi dituzuenek gogoan izan aurreko edo ondoko egunetan ere joan zaitezketela hilerrietara. Nolanahi ere, Donostiako Udaltzaingoak zaintza eta kontrol lanak egingo ditu azaroaren 1ean, hilerrien ingurunean arazorik izan ez dadin.”

Díezek gaineratu du Polloe eta Altzan hilerrietako kaleak identifikatzen dituzten kartel guztiak berritu direla. Aurrekoak kendu dira, zaharkituta baitzeuden, eta berriak jarri dira, Udalaren logoa ere eguneratuta. Gainera, hilerrien ohiko garbiketaz gain, sakoneko garbiketa bat egin da Polloe hilerriera sartzeko plazan, bai eta kale nagusietako espaloietan ere.”



## **LORADENDAK**

Landareak eta loreak erostea ahalbidetzeko, urriaren 25etik Santu Guztien egunera arte, baimenduta dago salmenta-postu batzuk jartzeko hilerriaren inguruan.

## **ORDUTEGIAK**

Gogoratu hilerrien ohiko ordutegia 08:00etatik 20:00etara dela apiriletik urrira, eta 08:00etatik 19:00etara azarotik martxora. Polloeko horma-hilobien eremua 08:00etatik 13:30era egongo da irekita, urriaren 25etik 28ra, eta 08:00etatik 18:00etara, urriaren 29, 30 eta 31n eta azaroaren 1ean.

## **GARRAIO PUBLIKOA**

Hilerrira joateko garraio publikoa erabiltzea gomendatzen da, trafikoak eragindako arazorik ez izateko. Hona hemen lineak:

- Polloe: 09:00etatik 20:00etara. Autobus-lineak: 9, 24, 27, 41 eta 42.
- 09:00etatik 20:00etara. Autobus-lineak: 13, 24, 27, 31 eta 38.
- Igeldo: beti irekita. 16. autobus-linea.

[www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) web-orrian kontsulta daitezke linea bakoitzaren ordutegiak eta maiztasunak.

## **KULTUR EKINTZAK**

“Heriotzari bizia ematen: Heriotza garrantzitsua delako” jaialdiaren III. edizioa dela-eta, Polloek bere ekarpena egingo du, musika-emanaldi labur batzuekin. Urriaren 29an, larunbatarekin, eta azaroaren 1ean, asteartearekin, egingo dira, Donostiako Dantza eta Musika Eskolak lagunduta.

Ekitaldia 12:00etatik 13:00etara izango da, hilerriko hainbat tokitan ([www.dandovidaalamuerte.org](http://www.dandovidaalamuerte.org))

Horretaz gain, meza bat egingo da Domu Santuen eguna dela-eta, azaroaren 1ean, asteartearekin, Polloe kaperan, 12:00etan. Mezan, Jaialdiko musikariei entzuteko aukera izango dugu.

Bestalde, datozen hilabeteotan ehorzketa musulmanetarako prestatuko den lursaila erabilgarri izatea espero da. Gipuzkoako Foru Aldundiak, lurraldeko hainbat udalekin elkarlanean, bultzatutako proiektua da, herritar islamikoei aukera emango diena maite dituzten pertsonak lurperatzeko.